

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

“Esmaltaciones San Ignacio-Pemco” 11. Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren bigarren xedapen-aldaketaren proiektua onestea eta hasierako onespena ematea 11. BIPBaren aldaketari

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 5ean egindako ohiko bilkuran:

1. Gasteizko “Esmaltaciones San Ignacio-Pemco” 11. Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren bigarren xedapen-aldaketari dagokion proiektua onestea.
2. Hasierako onespena ematea Gasteizko “Esmaltaciones San Ignacio-Pemco” 11. Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren bigarren xedapen-aldaketari.
3. Dosierra jendaurrean jartzea, hogei egunerako, ALHAOn eta lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzat dituen alegazioak edo oharrak aurkezterik ere.
4. Aldaketa behin betiko onetsi arte eta, edonola ere, urtebetez gehienez, 11. BIPBaren eremu osoan ez da baimenik emango antolakuntza berriaren aurka doazen lur zatikatze eta eraikitze lanetarako.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea —, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 9an

Alkate-udalburua
GORKA URTARAN AGIRRE